

















Ktool Kit- 1. Fasea:
Busturialdea-Urdaibaiko
etorkizunari buruzko
entzute prozesua


AGIRRE LEHENDAKARIA CENTER
for Social and Political Studies



Ktool Kit - 1. Fasea: Busturialdea-Urdaibaiko etorkizunari buruzko entzute prozesua

Material hau datuak biltzeko eta aztertzeko prozesuari buruzko funtsezko informazioa emateko diseinatuta dago, eta datu horiek nola interpretatu eta erabiltzen diren azaltzen du. Proiektuaren etapak eta sortutako inpaktua ulertzen laguntzea du helburu.



1.- Sarrera

Gaur egun, **irtenbide sinplerik ez duten erronka handiei** egin behar diegu aurre. Energia, zaintzak, enpleguaren etorkizuna edo egiturazko desberdintasuna bezalako arazoak lotuta daude eta ezin dira bereizita konpondu. Arazo konplexuak dira, ez baita nahikoa erantzun bakarra ematea arazo horiek konpontzeko. Esperimentazioa eta adimen kolektiboa uztartzen dituzten ikuspegiak behar dituzte, hau da, pertsona eta erakunde askoren lankidetzat. Aurrera egiteko, aldi berean ideia desberdinak probatzeko eta emaitzetatik ikasteko espazioak behar ditugu. Plan zurrinak aplikatu beharrean, konektatutako proiektuen portafolioekin lan egitea komeni da, hobeto egokitze eta denbora errealean ezagutzak sortzeko.

Datu-bolumen handiak maneiatzeaz gain, haien bilakaera marraztu behar dugu, eskuragarri egin behar ditugu gardentasuna sortzeko eta modu bisual eta sinplean komunikatzeko. Horregatik, ALCK proposatzen du gizarte-berrikuntzako prozesuak diseinatzeko, kudeatzeko eta ebaluatzeko moduari buruz sortu duen ezagutza **espazio digital** batera eramatea, oinarritzko gaitasun hauek barne hartuta:

1. Ekosistema konplexuak mapatzea eta bistaratzea.
2. Aktoreei sakonago entzutea
3. Informazioa taldean interpretatzea
4. Prozesuko iradokizun eta ekarpen guztiak sei hilean behingo txostenetan jaso eta partekatuko dira.

ALCK kontzeptualizatutako eta Bestiariok garatutako tresna erronka horiei elkarlanean ekiteko **espazio digital eta publiko** gisa aurkezten da. Sistema konplexu baten ikuspegitik diseinatura eta lurralde bakoitzaren dimentsio kulturean oinarrituta, tresna honek erronka hauen ikuspegi bateratua bistaratzea, ebaluatzea eta kudeatzea ahalbidetzen du, baita denbora errealean erabaki hobeak hartzeko ere, honako ezaugarri hauetan oinarrituta: eragileen eta ekimenen

ekosistemaren mapaketaren egoera, datu horiek identifikatutako pertzepzioekin gurutzatzea eta esperimentazio-zorroaren egoera, konplexutasun handiko inguruneetan funtsezko puntuak bistaratu ahal izanik.

ERABILERA ESKULIBURUA - 1. Fasea

Entzute prozesua hasierako fasean dagoenez, plataformaren aukera guztiak ez dira aktibo egongo. Eskuliburu honek lehenengo fasean eskuragarri egongo direnak hartzen ditu ardatz.

Busturialdea-Urdaibaiko entzuteko prozesuaren Ktool-a

Prozesua denbora errealean jarraitu nahi dut. Nola egingo dezaket?

Konekta zaitez Urdaibaiko K tool-era hemen:

<https://urdaibai.agirrecenter.eus/eu>

Ez du erregistrorik behar eta 3 hizkuntzatan dago eskuragarri: euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez.


Erabilera-gida

Webgunera konektatzean, pantaila hau ikusiko duzu lehenik:



Goiko eskuineko aldean hizkuntza aukera dezakezu. Gezian klik egin eta hizkuntza aukeratu besterik ez duzu egin behar. Aukeratutako hizkuntza letra lodiz nabarmenduta agertuko da:

EN = Inglés
ES = Español
EU -ES = Euskera - Español



Ondoko botoiak webgunea zure kontaktuekin partekatzeko aukera ematen du, eta "Saioa hasi" botoia profesionalek erabiltzeko da. Ez da erregistratu beharrik prozesuaren aurrerapena ikusteko.

Hasierako pantaila honetan eremu hauek ikus ditzakezu:


- **Proiektuaren deskribapen laburra eta "Plataformarako sarbidea"**
- **Proiektuaren faseak** azaltzen dituzten bideoak.
 - Mapaketa
 - Entzute aktiboa
 - Analisia
 - Interpretazio kolektiboa
 - Ekarpenak
- **Transkripzio berriak**
- **Mapaketaren grafiko interaktiboa**

Lehen pantaila honetan informazio asko aurki dezakezun arren, informazio guztia eskuratzeko "Plataforma ikusi" botoian klik egin beharko duzu. Esteka honetatik ere sar zaitezke:

<https://urdaibai.agirrecenter.eus/es/platform/1>

Plataforma

Ikusten duzunez, plataforma hasierako pantailaren oso antzekoa da, baina datuak irakurtzeko funtzionalitate gehiago ditu.




Eragileak, proiektuak eta plan estrategikoak ikus ditzakezu, eta elkarrekin nola erlazionatzen diren grafiko animatu baten bidez. Horiek testuinguruan kokatzeko **denbora-lerro** bat ere dago.

Eragile, proiektu eta plan estrategikoen edozein puntutan klik egitean, leiho txiki bat irekiko da eskuinean, informazioarekin. Informazio gehiago behar baduzu, sakatu **"Xehetasunak ikusi"**.

Transkripzioak

Atal honetan orain arte egindako elkarrizketen transkripzioak irakur ditzakezu. Beti anonimizaturik. Elkarrizketak euskaraz edo gaztelaniaz egin dira, elkarrizketatuaren erabakia errespetatuz. Prozesuak aurrera egin ahala, plataformako 3 hizkuntzetara itzuliko dira: euskarara, gaztelaniara eta ingelesera.

Atal honetara sartzeko, plataformaren pantailaren beheerantz mugitu besterik ez duzu egin behar. Bertan, **"Azken transkripzioak"** atala aurkituko duzu.



"Ikusi transkripzioa" sakatuz gero, elkarrizketa osoa irakur dezakezu, baina iragazki desberdinak aplikatuz ere bila dezakezu, pantailaren eskuinaldean **"Gehiago ikusi"** sakatuz gero.

Ikus dezakezunez, transkripzio bakoitzari ausazko zenbakizko kode bat esleitu zaio, identifikatzeko. Halaber, elkarrizketatua nor den adieraz dezaketen informazioak kendu egin dira elkarrizketetatik.

Pertzepzioak eta ekimenak


Atal honetan, jendearen pertzepzioak eta lurraldean egiten ari diren ekimenak ikus ditzakezu.

Pertzepzioa pertsona edo talde batek zerbait ulertzen, interpretatzen edo sentitzen duen modua da. Gai zehatz bati buruzko ideiak, iritziak edo ikuspuntuak dira. Pertsona askok gai bati buruzko antzeko pertzepzioak partekatzen dituztenean, pertzepzio-ereduak sortzen dira. Eredu horiek komunitate batean errepikatzen diren pentsatzeko edo sentitzeko moduak erakusten dituzte. Haiek identifikatzeak jendeak arazo jakin batzuk nola ikusten dituen eta nola jokatzeko duen ulertzen laguntzen du. Narratibak aztertze eta pertsonen errealtatetik gertuago dauden gizarte-aldaketak proposatzeko ere baliagarriak dira.



Goiko grafikoaren azpian, definitzen ari diren pertzepzio-ereduak aurkituko dituzu. Ez duzu ahaztu behar erreduak eta pertzepzioak denboran zehar eboluzionatzen direla. Beraz, normala da aldatzea.

Kontuan izan behar da, prozesu kualitatiboa denez, ezinezkoa dela esatea zenbatek pentsatzen duen era batera edo bestera. Bestalde, hasieran, gaian interes gehien dutenengandik etorri ohi dira iritziak, baina denei entzutea da asmoa, baita beti kontuan hartzen ez direnei entzutea ere.



Patroi guztietara sar zaitezke goiko ezkerreko "Gehiago ikusi" botoian klik eginez.

Perzepzioen azpian, herritarren kezkei aurre egiteko martxan jarri diren edo martxan dauden **proektuei** buruzko informazioa aurkituko duzu.



Proiektu guztietara sar zaitezke goian, ezkerrean, "**Gehiago ikusi**" botoia sakatuz.

Hurrengo faseak

Astero transkripzioak eta funtzionaltasunak gehitzen jarraituko dugu, prozesua aurrera egin ahala.. Horrek esan nahi du Ktool erabiltzeko kit hau ere, eguneratu egin beharko dela.

Hurrengo fasean, parte-hartzaileen iritzietan ereduak eta ñabardurak identifikatuko dira. Ondoren, interpretazio kolektiboa egingo dugu, eta jasotako pertzepzioak tokiko eragileekin elkarlanean interpretatuko dira; eta, azkenik, azken ekarpenak, txosten publikoetan argitaratuko direnak.

Eranskina

I. Tresnaren gobernantza kolaboratiboaren printzipioak

Tresna teknologiko honen helburua ez da teknologia bera. Erronka konplexuei modu digitalean heltzea kudeatzen, ebaluatzen eta bistaratzen laguntzen du tresnak, erabakiak datuetan oinarrituta hartzea errazteko helburuarekin eta prozesuaren dimentsio kulturala elementu nagusitzat hartzen duen gizarte-berrikuntzako plataformaren ikuspegia aplikatuz.

Open Source, open innovation. ALC tresna irekia da. Erabiltzeko eta/edo erantzuteko kodea tresnan bertan argitaratuko da.

Tresna bizia. ALCko taldea hobekuntzak eta berrikuntzak garatzen ari da tresnaren bigarren fase baterako, funtzionalitate berriak, adimen artifizia eta beste aurrerapen batzuk barne.

Pribatutasuna. Tresnaren pertzepzioei buruzko datuen % 100 kode bidez anonimizatuko dira.

Gardentasuna. Datuak denbora errealean bistaratzea publikoa izango da tresnara sartzen diren pertsona guztientzat.



A



L



C



K

